

ELIKATZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO KANPAINAREN ARGUDIOAK

1. Sarrera: gosearen egoera orokorra, munduan.

FAOk elikadura segurtasunaren egoerari buruz 2002. urtean egin zuen txostenean datu kezkarriak agertzen dira, munduan gosea urritzeko prozesua gelditu egin dela eta eskas elikatuta dauden lagunen kopurua handitzen ari dela adierazten baitute.

Egin diren azken kalkuluen arabera, 1998-2000 arteko denboraldian 840 milioi lagun zeuden eskas elikatuta munduan: 11 milioi lagun, herrialde industrializatueta; 30 milioi, trantsizioan diren herrialdeetan, eta 799, garapen bidean direneta. Datu horiei jarraituz, beraz, garapen bidean diren herrialdeetan 20 milioi lagun gutxiago soilik daude eskas elikatuta, 1990-92 denboraldiaz geroztik; hau da, urteko 2,5 milioi lagun gutxiago baino ez¹. Dena dela, 1997-1999 eta 1998-2000 denboraldiak alderatuz gero (hiru urteko azken bi denboraldiak, hain zuzen), garbi ikusten da munduan 15 milioi lagun gehiago daudela eskas elikatuta bi denboraldi horien artean. Gainera, garapen bidean diren 61 herrialdeetatik 26tan eskas elikatutako lagunen kopurua txikitu egin bazen ere, kopuru absolutuak handitzen jarraitu du².

Mundu mailako etekin marjinalak herrialde handien aurrerapenaren ondorio dira. Horren adibide dugu, esaterako, Txina, 74 milioi lagun gutxiago baitaude eskas elikatuta, 1990-92 arteko denboraldiaz geroztik. Baina horrelako herrialdeak alde batera utziz gero, egoera oso bestela ageri zaigu: Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileraren erreferentzia garaiaz geroztik, 80 milioi lagun gehiago daude eskas elikatuta garapen bidean diren gainerako herrialdeetan³.

2. Elikatzeko eskubidearen lege esparrua eta nazioarteko akordioak.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak honela dio 25. atalean: *“Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berak eta bai bere familiak bermatuta izan ditzaten osasuna nahiz ongizatea eta, batez ere, janaria, jantziak, bizitokia, mediku sorospena eta gizarte zerbitzuak; eta eskubidea du, halaber, lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo nahi gabe bizibidea galtzeko beste zerbaitez gertatzen denerako aseguruia izatekoa ere.”*

Elikatzeko eskubidea bigarren belaunaldiko eskubidetzat hartu zen, eta, betetzeari edo ez betetzeari dagokionez, badute desberdintasunik lehen belaunaldikoen aldean. Izan ere, lehen belaunaldikoez gauza bakarra eskatzen diote tokian tokiko gizarteari: gizabanako bakoitzaren eskubidea ez eragozte. Bigarren belaunaldikoak bermatzeko, ordea, bitarteko ekonomiko itzelak behar dira; eta, beraz, gutxika-gutxika soilik bete ahal izango dira, estatu bakoitzaren ahalbideen eta historiako unearen arabera.

Bai Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren hitzaurrean eta bai Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunarenean, honela aitortzen da: *“Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera, ezin da inolaz ere gizaki askea mamitu, beldurretik eta miseriatik aske den gizaki perfektu hori gauzatu, baldin eta gizabanako bakoitzari bere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eskubide zibil eta politikoak beste baliak dituzten bidea emango dioten baldintzak sortzen ez badira.”*

Aitortu egiten du, beraz, giza eskubideen bi multzo horien arteko mendekotasuna.

¹ Elikadurarekiko segurtasun ezaren egoera, 2002. FAO.

² FAOren Elikadura Segurtasunari buruzko Batzordearen txostena, 29. bilera aldian aurkeztua. 2003ko maiatzaren 12-14.

³ Ibidem.

3. Estatuak elikatzeko eskubidearekiko dituzten betebeharrak.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak betebeharrak ezartzen dituzten estatu sinatzaileei: herritar guztiak elikatzeko eskubidea bermatua izateko helburua lortzeko ahalik eta zabaldu eta eraginkorren ekitea, hain zuzen.

Delako itun horren 2.1. atalean adierazten denez, *“Itun honetako estatu sinatzaile guztiak konpromisoa hartzen dute hemen aitortutako eskubideen eraginkortasun erabatekoa apurka-apurka lortzeko neurriak hartzeko. Neurri horiek zeinek bere aldetik nahiz nazioarteko lankidetzan hartuko dituzte, ekonomikoak eta teknikoak izango dira, batez ere, eta dituzten ahalik eta baliabide gehien erabiliko dituzte horretarako. Gainera, eskubideen eraginkortasun erabatekoa lortzeko lan horretan, bitarteko egoki guztiak baliatuko dituzte, baita, eta bereziki, legeak ezarriko ere”*.

3. ohar orokorrak dioenez (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko estatu sinatzaileen betebeharrak buruzkoa da), estatu guzti-guztien betebeharrak da, besteak beste, eskubide ekonomikoak, sozialen eta kulturalen eraginkortasuna eta garapena lortzeko, nazioartean lankidetzan aritzea.

12. ohar orokorrak, bestalde, berriaz elikatzeko eskubideari buruzkoa den horrek, hain zuzen, zehatz-mehatz adierazten du estatuak eskubide horri dagokionez zer betebeharrak dituzten:

1. Errespetatzea: dagoeneko herritarrek elikadura egokia eskuragarri badute, eskuratzeko hori errespetatzeko betebeharrak dute estatuak, hau da, eskuratzeko hori eragozteko ekarriko duen neurriak ez hartzekoa.
2. Babestea: enpresek edo partikularrek herritarrei elikadura egokia eskuratzeko aukera ez dietela kenduko zaindu behar dute estatuak, eta horretarako neurriak hartzeko betebeharrak dute.
3. Erraztea: zenbait ekimen abiarazten saiatu behar dute estatuak, herritarren bizibidea (besteak beste, elikadura segurtasuna) ziurtatzen duten baliabideak eta bitartekoak eskuratzeko eta erabiltzeko sustatzeko.
4. Betetzea: azkenik, gizabanako edo talderen batek ezin badu eskura dituen bitartekoak erabiliz elikadura egokia izateko eskubidea baliatu, betiere bere gain ez dagoen arrazoiren bat medio, estatuak betebeharrak osoa dute eskubide hori zuzenean betetzeko. Hondamen naturalen nahiz bestelako biktima izan direnei ere badagokiek.

4. Estatuak eta nazioartean arteko lotura.

Elikatzeko eskubideak bi maila ditu, biak ere elkarren artean lotuta: bata, estatuak; eta, bestea, nazioartea.

Lehen mailari dagokionez, estatuak herritarrenganako zer betebeharrak dituzten hartzen du barne. Nazioarte mailari dagokionez, berriz, estatu orok duen betebeharrak bat du ardatz: beste zernahi herrialdeak elikatzeko eskubidea baliatu dezan ez eragozteko betebeharrak, batetik, eta kaudimenik gabeko herrialdeei dagokienez, haietako herritarrenganako duten erantzukizuna zuzenago gauzatzea, bestetik.

Estatuak bermatu egin behar dute beren politikak ez dutela elikatzeko eskubidea urra dadin laguntzen, eta, aitzitik, elikadura egokia izateko eskubidea babes eta erabat gauza dadin laguntzari direla, ahal den neurrian, behintzat⁴.

Nazioarte maila horretan dago, halaber, nekazaritzari, merkataritzari, teknologiei eta abarrei buruzko akordioak negoziatzeko dagokionez estatuak duten ardura.

Nazioarteko lankidetzak nazioarte maila horretan legoke, eta azpimarratzekoa da, bereziki, elikagai laguntzak betetzen duen edo bete beharko lukeen eginkizuna. Horrelako laguntzak maiz kritikatu izan dira, eta kritikatu dira, oraindik ere, sarri baino sarriagotan laguntza horietaz egiten den erabilera politikoa dela eta. Izan ere, laguntza jasotzen duten herrialdeak laguntza eman dutenen menpe geratzen dira edo lehendik zen menpetasuna areagotu egiten da; laguntza premian dauden herrialdeetako elikadura ohituretarako desegokiak diren produktuak sartu, eta kontsumo ohiturak aldatzea eragiten dute; elikaduraren alderdi kulturala ahaztu egiten da, etab.

⁴ Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarte zibilaren baterako ekarpena. FIAN mintegia, 2002.

5. Nekazaritza, garapena eta elikatzeko eskubidea.

Landa inguruetan kultur ondarea, paisaia eta ingurumena babestea herri ondarearen alde egitea da⁵. Herri ondare horien eskaintza babesteko, ezinbestekoa da egoera lagungarriak sortzea; esaterako, dirulaguntzen, prezio administratuen edo nekazaritzako ekoizpena garatzeko beste prozedura batzuen bidez.

Nekazaritza eredu industrialaz aztertu behar den orotan, parametro bakarra ez luke produktibitateak izan behar; aitzitik, ingurumenari nahiz gizarteari lotutako alderdiak ere hartu behar lirateke kontuan. Eta hori dela eta, garapen bidean diren herrialdeetan gosea errotik desagerrarazteko borrokan, estrategia garbi dago, gure iritziz: familiako nekazaritza ustiatzearen alde egin behar da, ardatz gisa horrelako eredu ekologiko txiki nahiz ertainak hartu eta sustatu, horiek izan baitezakete eraginik handiena gosea urriarazteko borrokan.

Nekazaritza politikak herrien elikadura subiranotasuna lortzera jo behar dute. Herri orok eskubidea du biztanleria osoaren elikatzeko eskubidea bermatzeko, eta, horretarako, elikagaien ekoizpenari, banaketari eta kontsumoari buruzko norke bere politika eta estrategia jasangarriak finkatzeko. Eta horri deritzogu elikadura subiranotasuna. Politika eta estrategia horiek, betiere, ustiatze txikia eta ertaina izan behar dituzte oinarri, eta errespetatu egin behar dituzte tokian tokiko kulturak eta aniztasuna.

Gure ustez, elikadura subiranotasuna da gosea eta malnutrizioa errotik desagerrarazteko bidea, bai eta landa inguruetan elikadura segurtasun iraunkorra eta jasangarria bermatzeko ere, eta kontuan izan behar da, ez ahaztu, inguru horietan bizi direla behartsuen eta gosetuen %70.

6. Baliabideak eskuratzea.

a) Lurra

Lurra da nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenerako funtsezko baliabidea.

Lurraren jabegoa gutxi batzuen esku egoteak izugarri zailtzen du ekoizle txikien egoera, gehien-gehienek arazo larriak baitituzte, lurra eskuratu ahal izateari eta lantzen duten lurraren jabegoa legez aitortzeari dagokionez. Azken urteotan gertakari tamalgarriak jazo dira geure begien aurrean: baliabide naturalak lortzeko asmoz, lurrez bidegabe jabetzea; hazien nahiz sendabelarren erabilerarekin lotutako ezaguera antzinakoak indarrez ebastea; lurrik onenak erabiltzea eta degradatzea, eta, azkenik, hein handi batean herrialde industrializatuek eraginda, kutsadura atmosferiko izugarria.

Egin diren azken nekazaritza erreformak merkataritzaren alde bultzatu ditu Munduko Bankuak, ez lurra lantzen dutenek eta hartatik bizi direnek bizimodu eta garapen duina izan dezatela laguntzeko, lurra zuzentasunez banatu nahian.

b) Ura

Ura baliabide natural mugatua da, bizirik izateko eta osasunerako funtsezko herri ondarea.

Gaur egun, 1.400 milioi lagunek ezin dute edateko urik eskuratu. Egungo joera alderantzizko ezer egiten ez badugu, 2025. urtean 4.000 milioitik gora lagun izango dira edateko urik lortu ezin izango dutenak: munduko biztanleria osoaren erdia, hain zuzen.

Nekazaritza ustiatze txikiak nekazaritza industrial intentsibo bihurtu dira, eta horixe da baliabide hidrikoen egungo krisiaren eragile nagusietako bat. Nekazaritza jarduerak, izan ere, gaur egun daukagun ur geza guztiaren %70 kontsumitzen dute.

⁵ Edonork erabiltzekoak diren ondareak dira herri ondare.

c) Haziak

Guztiok dakigu haziak ezinbestekoak direla nekazaritza jarduerarako. Kontua da, alabaina, askotan, haziak ez daudela nekazarien esku, erabili, berez, nekazariak erabiliko badituzte ere.

Haziak kontrolatzeak ekoizpena kontrolatzea dakar, ezbairik gabe. Eta kontrol hori Iparraldean dauden enpresa multinazional gutxi batzuen esku dago, gaur egun: beraiek esportatzen dituzte haziak Hegoaldeko herrialdeetara, goseteak edo gose egoera kronikoak jota dauden herrialde horietara, hain zuzen.

Haziak eskuratzea eta kontrolatzea erabat mugatuta dagoen testuinguru horretan, bioteknologia omen da, hala diote, gosearen arazoa konpon dezakeen alternatiba. Ez genuke ahaztu behar, alabaina, Lurrean badela gu guztiontzako adina elikagai, eta, beraz, gosearen arazoa baliabideak banatzeko moduan datzala, nagusiki.

Delako bioteknologia hori, gainera, herrialde industrializatuetan dauden enpresa gutxi batzuek dute monopolizatuta, eta horrek, bistan denez, handitu edo areagotu baino ez du egiten Hegoaldeak Iparraldearekiko duen menpetasun teknologikoa.

d) Arrantza baliabideak

Mundu mailako elikadura ekonomiaren faktore garrantzitsuenetako bat da arrantza. Mundu osoan, 30 milioitik gora lagun dira arrantzale edo arrain hazle, horiek guztiek gehi horien familiek dute arrantza bizibide⁶. Egindako kalkuluen arabera, arrantza garapen bidean diren herrialdeetako 100 milioi inguru lagunak bizibidea da⁷.

FAOren arabera (2001), itsasoko arrantzako mundu osoko baliabideen %50 inguru erabat ustiatuta daude; %25, gehiegi ustiatuta, eta gainerako %25 inguruak, ustiapen maila handiagoa jasan ahal izango luke.

1.000 milioi inguru lagunek, gehienak ere garapen bidean diren herrialdeetakoak, arraina dute proteina iturri nagusia, eta haren premian dira, ezinbestez.

7. Ondorioak.

- Elikatzeko eskubidea funtsezko giza eskubideetako bat da, eta, beraz, aitortu, errespetatu, babestu eta bermatu egin behar dute estatuek.
- Elikatzeko eskubidea gauzatzeko, ezinbestekoa da beste eskubide batzuk ere baliatzea; besteak beste, ura izateko eskubidea eta garapenerako eskubidea.
- Munduan bada gu guztiok elikatzeko adina elikagai. Planeta honetako baliabideak zuzentasunez banatzeko behar diren neurriak hartzea da, beraz, kontua.
- Elikatzeko eskubidea mundu osoan egiaz gauzatea lortuko lukeen nazioarteko akordiorik baden arren, gobernuek ez dute benetako gogo politikorik eta ez dute egiazko ahaleginik egiten eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eskubide politikoekin eta zibilekin egiaz pareka daitezen.

⁶ Nekazaritza, mundu mailan: 2015/2030. urte aldera. FAO, 2002.

⁷ Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo. Hegoa/Icaria, 2000.